



I. ATALA TXILLARDEGIREN LANAREN OMENEZ

>>>

5

HIZKUNTZA ETA NORTASUNA TXILLARDEGIREN LANEAN: ONDARETIK PRAKTIKARA

Jacqueline Urla

Antropologia Departamentua

Massachusetts Amherst-eko Unibertsitatea

Helbide elektronikoa: jurla@anthro.umass.edu

Antropologiaren barruan ukaezina da hizkuntza oinarritzkoa dela kulturaren, hau da, gizaki gisa ikasten ditugun eta kolektibitateko partaide gisa definitzen gaituzten sinesmen, balio eta ohituretan. Antropologoek ustez, hizkuntzaren bidez eskuratzen da kultura. Hizkuntzak berak kulturaren produktu ere badira, hau da, irudikapen sinbolikoko sistemak, kolektibitateak denboraren poderioz sortuak eta etengabe garatuz doazenak. Kultura bat benetan ezagutzeko, benetan ulertzeko, bertakoen komunikazio-hizkuntza edo —hizkuntzak ikasi behar direla truisimo bat da. Antropologoentzat, kulturaren espresioa da hizkuntza. Nahiz literatura jasoko prosa izan nahiz nerabeen kaleko hizkera izan, hizkuntzan ikusten dira gizarte-balioak, genero-harremanak, denbora— eta nortasun-kontzeptuak: beti ohartzen ez bagara ere, garen bezalakoak egiten gaituzte. Are gehiago: hizkuntza edo bere erabilera ezagutu ezean, nolabait ere kultura horretatik kanpora zaude. Komunikazioa egon daiteke, jakina, baina ulermen-maila murrizta da.

Antropologiaren funtsean dauden printzipio horiek axiomatikoak izan ziren Txillardegiren euskarari buruzko idazlanetan, eta horregatik iritzi zion hizkuntza berreskuratzea funtsezkoa zela herrigintzarako. Era-gin handiz eta gogotsu defendatu zuen hizkuntzaren biziberritzea, Fran-

coren erregimenaren bukaeran berriro piztutako nazionalismoaren bigarren olatuan. Lehenik ETA sortzen lagundu, eta erakundea utzi ondoren, irakasten, ikertzen eta hainbeste urteko militantziarekin jarraitu zuen, euskara biziberritzearen alde. Borroka politikoaren erdian hizkuntza zegoela etengabe eta tinko aldarrikatzeaz gain, Txillardegik praktikara eramane zuen: euskara ikasi, euskaraz idatzi, eta bere eguneroko hizkuntza bihurtu zuen.

Aditu, idazle eta euskaltzale polifazetiko honi eskainitako BATen ale berezi honetan, azken alderdi hori jorratu nahi dut. Hau da, Txillardegik nortasunaren eta hizkuntza-praxiaren arteko loturari emandako garrantzia; beste hitzetan esanda, euskara ikastea eta erabiltzea euskaldun bihurtzeko eta izateko bidea izatea. Alderdi hori azpimarratu nahi izan dut, bereizgarri horixe izan baitzuen Txillardegik berak Francoren erregimenaren bukaeran itxuratu eta indartu zuen hizkuntzaren aldeko mugimenduak. Baina, horretaz gainera, euskal nortasunaren eta naziotasunaren kontzeptu oso pragmatikoa agertzen du, behar adina aztertu gabea.

Honako hau, beraz, Txillardegiren ekarpen berezi batzuk identifikatzeko ahalegina da, bai eta adituek egindako deiarri erantzuteko ahalegin bat ere, mugimendu nazionalisten arteko eta barruko izaera, helburu, oinarri ideologiko eta sinbolo-bilduma desberdinak hobeto ezagutuak izan daitezten (Kasmir 2002). Hori are garrantzitsuagoa bihurtzen du une politiko eta intelektual honek. Ideologia politiko gisa nazionalismoak dituen akatsei eta dohainei buruzko eztabaidei ekin ahal izan aurretik, nazionalismo guztiak ez direla berdinak aitortu behar dugu. Eta nazionalismo asko ez direla halakotzat hartzen.

Michael Billig-en liburu baliotsuak azkarki frogatzen duen moduan, nazio menperatzaileen nazionalismoa ohiko gauzatat hartzen dugu eguneroko bizitzan, barru-barruraino dago txertatua gure paisaian eta errutinetan, ikusezin bihurtzeraino, edo, berak dioen moduan, “banal” (Billig 1995).

Adituek nazionalismo-motak sailkatzeko erabili duten bide nagusietako bat izan da nazio-nortasuna eta nazio batekiko partaidetza definitzeko modua. Bi mota nagusi identifikatzen dira. Nazionalismo “primordialak” edo “etnikoak” dira nazio-nortasunaren oinarrian jatorria, “odola” edo kultura-ondarea daudenean, eta nazionalismo “zibikoak” dira, berriz, etnikoa ez den nazio-nortasun batean oinarritzen direnak. Nazionalismo zibikoan, nazio baten kide izatea ez du definitzen kulturak edo jatorriak, baizik eta balio batzuekiko edo ideal politiko batzuekiko konpromisoak. Primordialismoa loturik dago alemaniar erromantizismoak nazioaz duen ikuspegiarekin eta, aldiz, Frantziar Errepublika eman ohi da nazionalismo zibikoaren adibidetzat.

Kritikariek zalantzan jarri dute bereizketa hori, arrazoiarekin: nazionalismo zibikoa ere inoiz ez dago erabat libre kulturaren zenbait alderditatik, nahiz eta printzipio horiek nazioaren oinarri ez izan. Nolanahi ere,

Nahiz literatura jasoko prosa izan nahiz nerabeen kaleko hizkera izan, hizkuntzan ikusten dira gizarte-balioak, genero-harremanak, denbora- eta nortasun-kontzeptuak: beti ohartzen ez bagara ere, garen bezalakoak egiten gaituzte.

Borroka politikoaren erdian hizkuntza zegoela etengabe eta tinko aldarrikatzeaz gain, Txillardegik praktikara eramanez: euskara ikasi, euskaraz idatzi, eta bere eguneroko hizkuntza bihurtu zuen.

Nazionalismo zibikoan, nazio baten kide izatea ez du definitzen kulturak edo jatorriak, baizik eta balio batzuekiko edo ideal politiko batzuekiko konpromisoak.

nire helburua ez da sailkapen horren dohainak berrikustea, lan hori egin baitago (Brubaker 2004; 2001eko maiatza). Baina euskal nazionalismoari ezin zaiola aplikatu erakutsi nahi dut: Txillardegik sortzen lagundutako diskurtsotik hirugarren nazio-nortasun bat jaiotzen da —pragmatikoa— non nazioko kide eta partaide izateko irizpideak ez datozen jaiotzatik ez sinesmen soiletik, baizik eta euskara hitz egitetik.

HIZKUNTZA & NAZIOA

Kontu jakina da nazionalismoak aldaketa handiak jasan zituela berriro mobilizatzen hasi zenean Francoren erregimenaren azken bi hamarkadetan. Eusko Alderdi Jeltzaletik belaunaldi berri bat bereizi zen —hasieran gizarte-ekintza katolikoak eraginda, ondoren marxismo-leninismoak eta hirugarren munduko askapen-teoriak—, eta lehenbizi EKIN jaiotzen zen, hurrena ETA, eta azkenean Euskal Nazio Askapenerako Mugimendua izeneko koalizio zabala. Lehenagoko nazionalismoak bezala, sektore horrek “erkidego moralizat” zeukan nazioa, Marianne Heiberg-en hitzetan (1982). Hau da, beste nazioak gainditu eta euskal nazio batekiko patriotismoa gehitu zitzaion euskaldun izateak esan nahi zuenari. Baina nazionalismo iraultzailerik bihurtuz joan zen: nazio-askapenaren proiektuan integratu zen klase arteko borroka, eta aurre egin zitzaion lehenagoko nazionalisten politika erlijioso, arrazista eta burgesari. Mugimendu horren barruan aritu zen Txillardegi, ETArekin sortzailetako bat, baina laster oso kritikoa bihurtu zen hizkuntzaren gaiari dagokionez.

Hizkuntza ez da hartzen euskal nazionalisten arteko bereizketa ideologikoaren arrazoietako bat bezala. Urteetan zehar, eztabaida ugari egon dira ortografia- eta hiztegi-erreformei buruz. Aro garaikidean, Batuari eta ‘h’ri buruzko eztabaidak edo ‘z’ edo ‘s’ erabiltzeagatik aurreko mendean egondako hausturak dira aipagarrienak (Granja 1984). Baina politikaren espektro osoko nazionalistak bat zetozen euskararen balio sinbolikoan. Hasieratik, euskal nazionalismoarentzat euskara izan zen jatorri desberdinaren froga, eta nazioa aldarrikatzeko arrazoietako bat. Euskal nazionalismoaren bigarren olatuan, indarra hartu zuen euskararen izaera indexatzaileak, hau da, Espainiaren edo Frantziaren aldean euskal kulturaren desberdintasuna adierazten duen funtzio semiotikoak. Benjamin Tejerinak (1992) arrazoitu bezala, Francok hizkuntza zapaltzeak areagotu egin zuen euskararen balio sinbolikoa eta harekiko lotura, nortasun-ikur gisa. Belaunaldi berriak ikuspegi arrazistak baztertu, eta gero eta gehiago definitu zuen nazioa entitate etnolinguistikoa gisa. Jarraitu egin zuen euskal nortasunaren definizio moralak edo politikoak; euskal nortasunaren zatitza hartzen zen abertzale izatea. Baina testuinguru berri horretan, hizkuntza bihurtu zen kulturaren adierazle nagusi.

Diskurtso nazionalistaren eta batik bat Txillardegiren idatziak arretaz irakurriz gero, euskara nazioaren sinbolotzat hartu arren eta euskara-

ren alde lanean jarraitu arren, desberdintasunak zeuden (eta oraindik ere hala daude) "hizkuntza" eta nortasuna kontzeptualizatu eta elkarri lotzeko moduan, jarrera desberdinak baitaude euskaraz hitz egitearen garrantziaren inguruan. Diskurtso nazionalistan, kultura-ondare edo jabegotzat hartzea da hizkuntzari buruzko jarrerarik ohikoena. Hizkuntza norberak daukan 'zerbait' da, ahal dela berreskuratu eta etorkizunerako gorde beharrekoa. Hizkuntza 'ondareztat' hartzen duen jarrera hori nagusi izan zen euskal nazionalisten artean, eta gaur egun nagusi da Europako gizarte gehienetan. Ikuspuntu horretatik, euskararen aldeko jarrera ez dator nahitaez kontraesanean espainiera erabiltzearekin. Ideologia eta hizketa eremu bereziak ziren. Txillardegik hori apurtu, eta hizkuntza eta nortasuna praktikan oinarritu nahi izan zituen, hau da, hizketaren bidez agertzea bai norberaren euskal nortasuna bai benetako nazionalismoa. Euskal nortasuna eta nazionalismoa elkartuta, euskaraz hitz egitea (benetan) abertzale izateko modu bat zen. Eta areago, euskaraz hitz egitea euskaldun bihurtzeko eta naziogintzan parte hartzeko modu bat zen.

Praktikan oinarritutako nortasunaren eragilea, hein batean, belau-naldi berriak bultzatutako nazioaren ikuskera etnolinguistikoa izan zen. Hori argi ikusten dugu eragin handiko *Vasconia* izeneko testuan, Txillardegirekin batera hizkuntzalari eta ETAko kide izandako Federico Krutwigek idatzia. Bertan, Krutwigek gogor kritikatu zuen euskara abandonatu zuen burgesia nazionalista. Erabat baztertu zuen "euskotar" hitza, Sabino Aranek sortutako neologismoa euskaraz hitz egiten ez duen euskalduna izendatzeko, eta "aberrazio zitala" iritzi zion (Krutwig 1979: 28), ez zuelako hizkuntza euskal nortasunaren ardaztat hartzen. Bere oroitzenetan, Txillardegik behin eta berriro aipatzen du bere eta beste batzuen frustrazioa, nazionalistek —baita euskaltzale sutsuek ere— gaztelaniaz hitz egiteko eta beren manifestu guztiak ere hala idazteko ohitura zutelako.

Hau oso larria zen. Gure aurreko euskaltzaleen artean, itxuraz behintzat, euskara kanpoan zegoen, urrun, estratosferan, auskalo non. Baina guk, orduko abertzale gazteok, euskara gure herriaren hizkuntza bihurtzea nahi genuen, jende arruntaren hizkuntza. Hor haustura zegoen euskaltzaleen bi belaunaldien artean. ... euskaltzaleek espainieraz hitz egitea erabateko kontraesana iruditzen zitzaigun. Horrek euskaldun praxira eraman gintuen eta, beraz, lehenagoko euskaltzale askorekiko —egia esan, gehienekiko— gatazkara. ... Bizitza erreala eta sinbolikoaren arteko haustura ezin nabarmenagoa zen (1997: 129-130).¹

Hezkuntzarako eta kontzientziak ernatzeko ETArek hasierako materialetan argi islatu zen nazioa askatzeko borrokaren eta euskara berreskuratzearen arteko harremana (Jáuregui 2000: 212). Txillardegik, baina, kide zituen ekintzaileei dei egin zien beren hizketan erakutsi zezaten erakundearen euskararekiko konpromisoa. Hau da, aurreko aipuan dioen moduan, hitzen eta ekintzen arteko etena amai zezaten. Garai hartako erakundearen ideologia politikoari begira, argudio hori konbentzigarria izan zen, bat baitzeturten erakundearen borroka politikoaren oinarriko

Txillardegik sortzen lagundutako diskurtsotik hirugarren nazio-nortasun bat jaiotzen da —pragmatikoa— non nazioko kide eta partaide izateko irizpideak ez datozen jaiotzatik ez sinesmen soiletik, baizik eta euskara hitz egitetik.

**Diskurtso nazionalistaren
eta batik bat
Txillardegiren idatziak
arretaz irakurriz gero,
euskara nazioaren
sinbolotzat hartu arren
eta euskararen alde
lanean jarraitu arren,
desberdintasunak zeuden
(eta oraindik ere hala
daude) “hizkuntza” eta
nortasuna
kontzeptualizatu eta
elkarri lotzeko moduan,
jarrera desberdinak
baitaude euskaraz hitz
egitearen garrantziaren
inguruan.**

ekintzaren logikarekin.² Txillardegi, besterik gabe, hitzak ekintzen bidez erakusten direla dioen premisa hizkuntzari ere aplikatzeko eskatzen ari zen. Belaunaldi berriari dei egin zion euskaltzatasuna indarrean jartzeko, eta espainiera erabiltzeari uzteko. Adibidez, ekintzaileentzako ETA-ren lehenbiziko eskuliburuan, non Txillardegik eraginen bat izango zuela pentsatzen dugun, “Euskararekiko jarrera pertsonala” izeneko atala zetorren, nazio-askapenaren ekintzaile-gaiak bultzatuz euskara berreskuratzen lagun zezaten: “Euskaldunen nazio-hizkuntza den euskararen problema konpontzen laguntzen ez duen euskaltzalea, abertzaletasunaren kontra dago” (Hordagon berrargitaratua. 1979, I. lib.: 256). ETA hizkuntzarekiko konpromisoak erakusten hasi zen: komunikatuak ele bietan egiten, eta bere *Zutik!* aldizkarian orrialde asko eskaintzen hizkuntzaren gainbeheraren arrazoiak aztertzeari.³ Txillardegi erabakigarria izan zen erakundeak jarrera publiko bat har zezan hizkuntza suspertzeari buruzko gaietan. Bere aldizkariko orrietan erakundeak garbizaletasuna kritikatu, eta euskara estandarizatzearen eta hiriko bizitza modernora moldatzearen alde egin zuen. Hizkuntza-politikarekiko inplikazio horrek nahasi egiten ditu agintari asko, nazio-askapenaren prozesuan hizkuntza biziberritzeak duen garrantzia ikusi eta erakundeak hizkuntza-erreforma zuzentzen edo kontrolatzen duela pentsatzen baitute.

Txillardegiren idazlanetan gero eta frustrazio handiagoa agertzen da, ETAREN barruko bere ahalegin horiek direla eta. 1961ean erbesteratua izan ondoren, hainbat artikulu hasi zen argitaratzen *Branka* aldizkarian. Bertan kezkatu agertzen da, bere ustez hizkuntzaren aldeko borroka indarra galtzen ari delako erakundearen barruan.⁴ “ETA espainiarren” izeneko artikulu batean, eta izenburu sarkastikoagoko “Izquierditis Norteña” delakoan, Txillardegik dio erakundeak men egin diola ideologia marxista-leninistari. Erakundea bere egiten ari den kapitalismoaren kritika beharrezkoa eta ezinbestekoa omen da, baina ez nahikoa. Bere ustetan, Euskal Herriak ez litzuke jarraitu behar marxismoak dauzkan klase-iraultzaren eredu aurrezariak. Estrategia politiko berezi baten bidez egin behar zaie aurre zapalkuntza-mota gurutzatuei —kulturalari nahiz klasistari—, egoera historiko zehatzari erantzunez. Garai hartan Sartrearen eraginpean zegoen, eta Txillardegiri susmagarria iruditzen zitzaion marxismo ortodoxoa. Berak zioenez, kritikarik gabe onartuz gero, beste alienazio-mota bat bihurtzen zen. Asaldatuta zegoen gero eta euskara gutxiago erabiltzen zelako ETAREN argitalpenetan, eta euskaraz zekiten edo ikasten ari ziren ETAKO buruzagiak gutxi zirelako. Estatuaren zapalkuntzaren erdian hizkuntza dagoela, eta hori ahazten ari zaiola ohartzarazten dio ETARI bere eskutitzetan. Mugimenduari traizio egitea iruditzen zaio sozialista izan arren espainieraz mintzo den Euskadi. Txillardegiren ustez, burujabetzak eta klase-iraultzak ez dute bermatzen hizkuntza mantenduko denik, eta hori gabe hutsik daude. Beraren eta erakunde beraren bezalako disidenteen leloa izan zen “iraultza nazional bakarra,

euskaraz mintzo dena da” (Unzueta 1980: 19). 1967ko apirilean, ETArekin Bosgarren Biltzar historikoa amaitu eta lasterrera, ETA bere bidetik mugitu ezin zutela ikusirik, Txillardegi, Jose Maria Benito del Valle eta Jose Manuel Agirre, *Brankako* bozeramaile nagusiak, ofizialki irten ziren ETAtik.⁵

Txillardegik jarraitu egin zuen hizkuntzalaritzako eta euskararen aldeko azterketak argitaratzen eta hitzaldiak ematen Euskal Herri osoan. Lan handia egin zuen hizkuntzak kultura-nortasunean duen garrantzia azaltzen, adibidez eragin handiko “Hizkuntza eta Pentsakera” saiakeran, 1967an argitaratua. Bertan, nazioartean ezagunak ziren filosofoak eta hizkuntzalariak mobilizatu zituen, eta munduaren ikuskera eta psikea itxuratzeko orduan hizkuntzak duen garrantzia nabarmendu zuten, hizkuntza-gaiak “gainegitura soiltzat” iruditzen zitzaizkien kontra (Unzueta 1980:16). Iritzi horiek zabalkunde handia jaso zuten garaiko kultura-aldizkarietan —*Zeruko Argia, Muga, Jakin*—, bai Euskal Herrian Euskarazek antolatutako ikastaroetan ere. Saiakera honetan eta bere beste lanean, punta-puntako teoria zientifikoak erakusteko joerari eusten dio, era horretan hizkuntzen gizarte-bizitza hobeto ulertarazteko. Izugarria iruditzen zaio filologia gizartearen testuingurutik aldentzea eta hizkuntzak bitxikeria abstraktutzat hartzea.

Txillardegirentzat, euskara biziberritzea ez zen euskara kontserbatu nahia. Bere berezitasuna aitortu arren, euskara biziberritzea ez zen kokatzen arriskuan dauden hizkuntzen berri jasotzeko gaur egungo joeraren baitan, askotan espezie exotikoen bilketa dirudien horretan (Nettle eta Romaine 2000). Aldiz, biziberritzea herrigintzaren eta gizarte-aldaketaren forma kolektibo bat zen, non etnikoki euskaldunak zirenek eta ez zirenek, bertan edo kanpoan jaiota euskaraz hitz egiten zutenek parte har zezaketen (eta hartu behar luketen).

Hizkuntzari eta botereari buruzko Txillardegiren ikuspuntuak paralelismo interesgarriak ditu bere garaiko Pierre Bourdieu frantses soziologoarekin, hura ere soziologiaren bidez gizarte-kritika egitearen aldekoa. Beste gauza askotan bezala, Bourdieuren antzera, Txillardegik uste du dominazio sinbolikoa dagoela eguneroko jardunean, Bourdieuk “habitus” esaten dion horretan (cf. Bourdieu 1977; 1982). Bourdieuk dioenez (1991), gizarte-borroken barruan doaz “kognizio- eta erre-kognizio-borrokak”, hau da, egitari eta pertzepzioari buruzko borrokak. Oinarri horietan dituzte euskararen berreskuratzeari buruzko Txillardegiren ideiek. Hizkuntzaren norabidea aldatzeko, euskaldunek lehenik sentitu eta hitzez hitz erre-kognozitu behar zuten —begi berriz ulertu— hizkuntza-bizitzaren ohiko ordena begirunez gainezka zegoela gehiengoaren hizkuntzako hiztunekiko.

Agian “erradikaltzat” hartzen direlako, Txillardegiren ideiei, bai praktikan oinarritutako hizkuntza eta botereari bai euskal nortasunaren eraikuntza pragmatiko eta ez-esentzialistari, ez zaie guztiz aitortu daukaten berritasun analitikoak. Badirudi bere idazlanak gehiago hartu direla slogan politikotzat, gizarte-teoriatzat baino. Antropologian, baina, gizar-

Euskal nortasuna eta nazionalismoa elkartuta, euskaraz hitz egitea (benetan) abertzale izateko modu bat zen. Eta areago, euskaraz hitz egitea euskaldun bihurtzeko eta naziogintzan parte hartzeko modu bat zen.

Belaunaldi berriari dei egin zion euskaltzaletasuna indarrean jartzeko, eta espainiera erabiltzeari uzteko.

ETA hizkuntzarekiko konpromisoak erakusten hasi zen: komunikatuak ele bietan egiten, eta bere Zutik! aldizkarian orrialde asko eskaintzen hizkuntzaren gainbeheraren arrazoiak aztertzeari. Txillardegi erabakigarria izan zen erakundeak jarrera publiko bat har zezan hizkuntza suspertzeari buruzko gaietan. Erakundeak garbizaletasuna kritikatu, eta euskara estandarizatzearen eta hiriko bizitza modernora moldatzearen alde egin zuen.

te-borroken barruko gizarte-teoria eta inplikaturako alorrak aitortzeko joera dugu. Bere lana gaur egun berrikusiz, deigarria da bere ideien ondoren nortasunaren ikuspegi pragmatikoa edo performatiboa zabaldu izana azken hamarkadako gizarte-teorian. Nortasunaren ikuspegi performatiboa ez dator bat ideia kategoriko eta esentzialistekin, hau da, nortasuna kategoria finkotzat hartzen dutenekin: zara edo ez zara. Ideia pragmatikoekin lotura estua dute gizarte-konstruksionismoak, estrukturalismo osteko teoriak (Hall 1996) eta etnometodologiak, batik bat Harold Garkinkle-k garatuak.

Transexual batek emakume gisa bizitzeko ahaleginari buruzko bere behaketa etnografiko aitzindarian oinarritu zen genero-nortasuna ekin-tza sinbolikoaren emaitzat hartzen duen teoria. Generoarekiko hurbilketa hori interes handikoa izan da feministentzat. Ikuspuntu analitiko honetan inspiraturako hizkuntza-antropologiaren ikerlari feministek “praktikatzaileen komunitatea” kontzeptua asmatu dute, hizkuntza-komunitateak eta berekin lotutako nortasunak nola ulertzen ditugun birkonfiguratzeko (Eckert eta McConnell-Ginet 1992). Diotenez, generoa hobeto ulertzen da nortasun finko gisa ez baizik gutxi gorabehera *eskuraturako gaitasun* gisa, partekatutako praktika-multzo baten barruan. Maila politikoan, nortasunari eta nortasun-taldeei buruzko ikuspuntu pragmatikoei apurtu egiten dute esentzialismoaren problema, nortasunean oinarritutako mugimendu politikoen oztopo izan dena. Baina ikuspuntu horren alderdirik zirrargarriena, agian, ikerketa-bide berriak zabaltzea da, gizarte-eragileek hizkuntzaren dimentsio desberdinak nola erabiltzen dituzten aztertzeko: kodearen aukera ez ezik, erregistro, azentu, doinu eta abarren ñabardurak, “nortasuna” baino hitz erabilgarriagoa den “identifikazioa” adierazteko baliabide gisa (cf. Brubaker eta Cooper 2000). Hizkuntzaren eta nortasunaren arteko harremanari buruzko ikuspuntu horrek aukera handiak ematen ditu ikerketa oso interesgarriak egiteko euskal gizartearen hizkuntza-paisaia aberatsean. Horren adibide berriak dira gazteriarri buruzko Jone Miren Hernandezen lana (2005), Ben Rampton-en ikerketa (1995) Erresuma Batuan, eta Juan Pujolar-ena (2001) Katalunian.

HIZKUNTZA: PRIMORDIALA ALA PRAKTIKOA?

Nire proposamena da, beraz, hizkuntzaren eta nortasunaren arteko Txillardegiren ikuspuntu pragmatikoa berrikuntza teorikotzat hartu behar-ko litzatekeela, eta ez slogan politiko soiltzat. Euskaltzaleatasunaren mugimendu zabalak bere egin du, eta euskara irakasteko mugimendua-arentzat akuilua izan da “praktikatzaileen komunitatera” ahalik eta jende gehien sartzeko. Euskal nortasunaren berezitasun hori ez da aintzakotzat hartu abertzaletasunari buruz adituek egindako azterketa gehienetan, agian adituek “ondare” gisa ikusten dutelako hizkuntza. Abertzaletasunaren historiek Sabino Aranak aberriaz eskainitako definizioa aipatu ohi

dute, arraza-, hizkuntza-, erakunde- eta politika-irizpideak konbinatzen dituena. Euskal Herri Langilearen definizio sozialista ere aipatzen dute, abertzaletasunaren eta langile-borrokaren konbinazioan oinarritua, eta ez etnizitatean. Lehenbizikoa ezaugarri primordialen adibidetzat eta bigarrena ezaugarri zibikoen adibidetzat hartu izan da. Beste batzuetan bezala, euskararen kasuan, nazio bateko kide izateko hizkuntza-irizpideak kulturaren beste alderdi batzuen pare hartu dituzte adituek, hau da, primordialismoaren adierazpen gisa; hizkuntza jaiotzaz duzun zerbait delakoan. Txillardegik eta euskalgintzak nortasunaz duten ikuspuntu pragmatikoa eta nazioa hizkuntza-praktikatzaileen komunitatetzat hartzea, baina, ez da ongi egokitzen kategoria horretan; bere kontzeptualizazioa ez-etnikoa eta anti-esentzialista da.

Nire ustez, kontzeptu hau, ikerketa-bideak zabaltzeaz gain, beharrezkoa da euskal nortasunaren egungo eremua ulertzeko. Ezin da euskal errealitatea guztiz jaso ikuspuntu pragmatiko hori aintzat hartu gabe, etnia-, lurralde- eta politika-mailako definizioekin batera. Bestela nola ulertu abertzaleen arteko elkarrizketa sutsuetan gertatzen diren isiltasun gogaikarriak, taldeko norbaitek galdetzen duenean ‘zergatik ari gara espainieraz?’. Bestela nola ulertu euskaraz bizitza erabakitzen duten gizabanakoen berehalako integrazioa? Richard Kearny-k dioenez, irlandarra izatearen zati bat, etengabe ‘zer da irlandarra izatea?’ galdetzea da (Kearny 2004). Horixe izan daiteke eremu urriko hizkuntzetako hiztun askoren eta estaturik gabeko kide askoren egoera existentziala. Gizarte konplexu guztietan bezala, ez dago euskal munduaren kide izateko edo espresatzeko bide bakar bat. Kontzeptualizazio desberdinak bata bestearekin tirabiran bizi dira, eta beren arteko etenetatik sortzen dira Euskal Herrian bizi izatearen dilemak eta kontraesanak.■

AIPAMENAK

- Alvarez Enparantza, Jose Luis [Txillardegi]. 1997. *Euskal Herria en el Horizonte*. Tafalla (Espainia): Txalaparta.
- Billig, Michael. 1995. *Banal Nationalism*. Londres: Sage Publications.
- Bourdieu, Pierre. 1977. *Outline of a Theory of Practice*. New York: Cambridge University Press.
- Bourdieu, Pierre. 1982. *Ce que Parler Veut Dire*. Paris: Fayard.
- Brubaker, Rogers eta Frederick Cooper. 2000. *Beyond "Identity"*. *Theory and Society* 29:1-47.
- Brubaker, Rogers. 2004. "Civic" and "Ethnic" Nationalism. In *Ethnicity without Groups*. 132-146 or. Cambridge, MA eta Londres: Harvard University Press.
- Eckert, Penelope eta Sally McConnell-Ginet. 1992. Think Practically and Look Locally: Language and Gender as Community-Based Practice. *Annual Review of Anthropology* 21:461-490.

Txillardegiren ustez, burujabetzak eta klase-iraultzak ez dute bermatzen hizkuntza mantenduko denik, eta hori gabe hutsik daude.

Beste gauza askotan bezala, Bourdieuren antzera, Txillardegik uste du dominazio sinbolikoa dagoela eguneroko jardunean, Bourdieuk "habitus" esaten dion horretan.

**Bere lana gaur egun
berrikusiz, deigarria da
bere ideien ondoren
nortasunaren ikuspegi
pragmatikoa edo
performatiboa zabaldu
izana azken
hamarkadako gizarte-
teorian.**

**Ezin da euskal
errealitatea guztiz jaso
ikuspuntuko pragmatiko
hori aintzat hartu gabe,
etnia-, lurralde- eta
politika-mailako
definizioekin batera.**

- Elorza, Antonio. 1978. *Ideologías del Nacionalismo Vasco, 1876-1937. De los 'euskaros' a 'Jagi-Jagi'*. Donostia: L. Haranburu.
- Elorza, Antonio, ed. 1995. *Sabino Arana Goiri. La Patria de los Vascos*. Idazlan politikoaren antologia, Antonio Elorzak editatu eta iruzkindua. Donostia: Haranburu.
- Granja Pascual, Jose Javier. 1984. "Divergencias lingüísticas y literarias entre Arturo Campión y Sabino Arana". *Fontes Lingua Vasconum: studia et documenta*. 43. zk.:155-179.
- Hall, Stuart. 1996. "Introduction: Who Needs Identity?" In *Questions of Cultural Identity*. Hall, Stuart eta Paul de Gay, arg. 1-17. or. Londres, Thousand Oaks, New Delhi: Sage Publications.
- Heiberg, Marianne. 1980. "Basques, Anti-Basques and the Moral Community". In *"Nation" and "State" in Europe: Anthropological Perspectives*. R.D. Grillo, arg. 45-60. or. Londres: Academic Press.
- Hernández García, Jose Miren. 2005. *Jolasgaraia. Gaztetxoak, Hizkuntzak eta Identitateen Adierazpenak*. Soziologiazko Euskal Koadernok/Cuadernos Sociológicos Vascos. Gasteiz: Eusko Jaurilaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- Hordago. 1979. *Documentos*. 18 libk. Donostia: Lur.
- Járegui, Gurutz. 1981. *Ideología y estrategia política de ETA. Análisis de su evolución entre 1959 y 1968*. Madril: Siglo XXI.
- Járegui, Gurutz. 2000. *ETA: Orígenes y evolución ideológica y política*. In *La Historia de ETA*. Antonio Elorza, koord. 172-276. or. Madril: Temas de Hoy.
- Kasmir, Sharryn. 2002. "More Basque than You! Class, Youth, and Identity in an Industrial Basque town". *Identities: Global Studies in Culture and Power* 9:39-68.
- Kearney, Richard. 2004. "Postnationalist Identities: A New Configuration". In *Empire and Terror: Nationalism/Postnationalism in the New Millennium*. B. Aretxaga, D. Dworkin, J. Gabilondo, eta J. Zulaika, arg. 29-40. or. Conference Paper Series. 1. zk. Reno, NV: Center for Basque Studies.
- Krutwig, Federico. 1979 [1963]. *La Nueva Vasconia: Estudio Dialéctico de una Nacionalidad*. Bilbo: Ediciones Vascas.
- May, Stephen. 2001. *Language and Minority Rights: Ethnicity, Nationalism and the Politics of Language*. Harlow, Essex, Erresuma Batua, New York: Longman/Pearson Education.
- Nettle, Daniel eta Suzanne Romaine. 2000. *Vanishing Voices: The extinction of the World's Languages*. Oxford: Oxford University Press.
- Pujolar, Joan. 2001. *Gender, heteroglossia and power: a sociolinguistic study of youth culture*. Berlin; New York: Mouton de Gruyter.
- Rampton, Ben. 1995. *Crossing: Language and Ethnicity among Adolescents*. Londres eta New York: Longman.
- Tejerina Montaña, Benjamin. 1992. *Nacionalismo y Lengua: los Procesos de Cambio Lingüístico en el País Vasco*. Centro de Investigaciones Sociológicas, Colección "Monografías". 122. zk. Madril: Siglo XXI.

Unzueta, José Luis. 1980. La Quinta Asamblea de ETA. SAIOAK 4:3-52.
Zulaika, Joseba. 1988. *Basque Violence: Metaphor and Sacrament*. Reno, NV:
University of Nevada Press.

OHARRAK

1. Jatorrizko testuak honela dio: "En aquellos euskaltzales anteriores a nosotros, al menos en apariencia, el euskara estaba fuera, lejos, en la estratosfera, no sabíamos dónde. Pero nosotros, los jóvenes abertzales de entonces, queríamos ver al euskara convertido en la forma de expresión de nuestro pueblo, de la gente de la calle. Ahí aparecía el punto de ruptura entre las dos generaciones de euskaltzales. ... que los euskaltzales hablaran en euskara nos resultaba completamente contradictorio. Esto nos inducía a una praxis euskaldun y, por tanto, a enfrentarnos con muchos euskaltzales anteriores a nosotros, a decir verdad, con la mayoría... (...) la ruptura entre la vida real y la simbólica no podía ser más notoria" (Alvarez Enparantza 1997: 129-130).
2. Ikusi Zulaika (1988), ekintzak ETAREN ideologia politikoan duen garrantziaz.
3. Oso interesgarria izan zen 1963aren urriko Zutiken alea, ia osorik euskarari eskainia. Ale horretan, hizkuntzaren aldeko mugimenduaren lau helburu nagusi identifikatzen dira: a) alfabetatzea, b) euskara moldatzea industria-gizarte modernoaren komunikazio-beharretara, c) euskara batua sortzea, d) euskal kulturaren erakundeak berritzea, batik bat Euskaltzaindia. Horiek denak izan ziren hizkuntzaren aldeko mugimenduaren borroka-eremuak (Jauregi 1981: 271-272)
4. Jaúreguik (1981) "kulturalisten" ahotsa deitzen dio Brankari. Txillardegiren memorietan daude itzulita eta berrargitaratuta ETAREN aldaketa ideologikoa kritikatzuz 1965 eta 1966 artean (Brankaren aurretik) buruzagiei bidalitako txostenak eta eskutitzak (Alvarez Enparantza 1997: 213-240).
5. ETAREN lehenbiziko urteetako tirabira ideologiko hauei buruzko eztabaida gehiagorako, ikusi Jaúregui (1981).